

Andoaingo mintzalaguna 2018

Ahoz aho, bizi-bizi

“Andoaingo mintzalaguna” ekimenak euskararen erabilera sustatzea du bete-betean helburu.

2011. urtean jarri genuen abian Mintzalaguna egitasmoa Andoainen, eta harrezgero urtero-urtero, hutsik egin gabe, antolatu dugu.

Pozik egoteko moduan gaude: zortzi urte hauetako parte hartzaile kopuru altuena daukagu aurten Mintzalagunean. Beraz, pozik gaude, baina gehiago nahi ditugu.

Hona gaur egungo datuak:

- 57 lagun ari dira parte hartzen. Horietatik 40 dira euskara praktikatzera etortzen direnak, eta 17 dira 40 horiei euskaraz hitz egiten laguntzera etortzen direnak.
- Astean egun batez, goizez edo arratsaldez, eta egunean ordubete: horixe da Mintzalagunak eskatze duen dedikazio guztia.
- Asteko egun guztietan daude taldeak, astelehenetik ostiralera bitartean.
- Talde txikiak antolatzen dira, bakoitzaren gogoaren arabera: bi, hiru, lau bost eta sei laguneko taldetxoak daude. Aurten dagoeneko guztira baditugu 17 talde.
- Bi modutako parte hartzaileak daude Mintzalagunean: batzuk dira, gehienak noski, euskara praktikatzera etortzen direnak (“bidelariak” deitzen diegu horiei, 40 dira), eta besteak dira euskara praktikatzen laguntzen dutenak (“bidelagunak” deitzen diegu horiei, 17 dira).

40 andoaindar horien artean, batzuk euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituzte, kosta egiten zaie eta ez dute euskaraz norekin hitz egin beren inguruan. Beste batzuk badira euskara euskaltegian ikasi eta nahiko ondo dakitenak, baina praktikatu beharra daukatenak. Beste batzuk dira txikitan euskara ikasi baina gerora ahaztu dutenak, eta orain berreskuratu egin nahi dutenak. Mintzalaguna ez da euskaltegia, ez da euskarako klasea: Mintzalaguna da euskara praktikatzeko gune bat, euskaraz hitz egitea batzuetan zaila zaien pertsonak euskaraz lasai-lasai, lotsarik gabe, hanka sartzeko beldurrik gabe, patxada ederrean hitz egiteko gune bat da Mintzalaguna. Eta baldintza nagusia da, ondo pasatzea: euskara praktikatuz, horrelaxe euskara ikasiz, gozatzea, ondo pasatzea. Ez baita klasea: kontu kontari aritzen dira Mintzalagunan dabilzanak. Kontu kontari kafe bat hartuz edo kalean paseatuz: gogoko dutena eginez.

Euskara ikasteko, azkenean, gakoa erabiltzea da, hitz egitea. Ez da nahikoa NOR-NORI-NORK ikastea: hitz egitea da denok nahi duguna, eta hitz eginez ikasten da hitz egiten. Aproposa da horretarako Mintzalaguna.

Batzuetan, talde txikiak elkarrekin juntatu eta hainbat ekintza egiten dituzte. Mintzalaguneko aurtengo ekintzen artean aipatu ditzakegu, esate baterako, bertso afaria, Urmara museora bisita, errege-opilak egiteko tailerra, sagardotegia, mendira irteera edo karaokea.

Kontua azken finean da, euskaraz ahalik eta gehien hitz egitea, bakoitzak dakien neurrian, ondo, ez hain ondo, baldar xamar... nahi eta ahal den moduan, baina euskara praktikatu gaizki hitz egiten den beldurrik gabe. Hori da Mintzalagunaren egitekoa. Eta ondo pasatzea. Eta horixe gertatzen da: oso kopuru altua da urtetik urtera errepikatzen duena.

Guk dakiguna da, euskara indartzeko modua “ahoz aho, bizi-bizi” mantentzea dela, eta euskararik txarrena, egiten ez den euskara dela. Horregatik laguntza eta bultzada eman nahi diegu euskaraz egin nahi bai, baina egiteko zailtasunak dituztenei.

Gurasoei ere begira gaude. Eta badugu ekimen bat gurasoek eta haurrek beren artean euskara erabil dezaten: “BIDAIDE” egitasmoa da. Gurasoek eta haurrek elkarrekin euskaraz gozatzeko ekintza-sorta bat da Bidaide. Aurtengoan, dagoeneko ipuin kontalariaren saioa izan dugu Basteron, eta aurreikusi ditugu datozen aste eta hilabeteetarako gozogintza tailerra, jolas kooperatiboak, eskularen tailerra, dantza tailerra eta Interneteko aplikazioak euskaraz eskuratzeko saio bat.

Euskara praktikatu, ondo pasa, lagun berriak egin... benetan merezi duen zerbait da Mintzalaguna, astean ordubete besterik eskatzen ez duen konpromisoa.

Hasieran esan bezala, inoiz baino parte hartzaile gehiago daukagu aurten, baina are gehiago nahi ditugu. Dei egiten diegu, beraz, euskaraz hitz egiteko aukera handirik izan ez eta euskaraz aritzea kostatzen zaien herritarrei, Mintzalagunan izena eman dezaten. Eta, baita ere, dei egiten diegu, euskaraz normal-normal hitz egiten duten herritarrei, izena eman dezaten laguntzaile moduan Mintzalagunan parte hartzeko. “Bidelagunak” deitzen diegu euskara praktikatu nahian datozenei euskaraz hitz egiteko laguntza ematen dieten herritar euskaldunei. Astean ordubete da, eta uste dugu euskaldunok egin behar dugula, inola ahal baldin badugu behintzat, ahalegin txiki hori euskarara gerturatu nahi duten andoaindar horiei laguntzeko, Mintzalaguna bezalako aktibitate atsegin eta errazean.

Mintzalagunan modu batean edo bestean parte hartzeko izena ematea egin liteke Udaletxean (Euskara Zerbitzuan) edo AEK euskaltegian.

Hain zuzen ere herritar gehiago anima dadin Mintzalagunan parte hartzera, berdin du euskara praktikatzeko edo praktikatu nahi duenari laguntzeko, bideo kanpiana bat antolatu dugu. Zortzi bideo egin ditugu, oso bideo laburrak, minutu eta erdi pasatxokoak. Interneten jarriko ditugu, pixkanaka pixkanaka, guztiak, hiruzpalau astetan. Mintzalagunan parte hartzen duten lagunak dira protagonistak: gutzira, 25 andoaindar ageri dira bideoetan, eta denei eskerrak eman nahi dizkiegu parte hartu dutelako.

Andoainen, 2018ko otsailaren 7an.



Honako hauek dira parte hartu duten hogeita bostak (zazpi *bidelagun* eta hemezortzi *bidelari*):

Marian Ibaibarriaga
Toñy Landa
Toñi Rodríguez
Marijose Arconada
Mertxe Larralde
Ainara Loiarte
Domi Lucero
Merce Brau
Patricia García
Angel Bueno
Txus Sebastian
Inaxio Arana
Josean Trujillo
Miren Ansa
Ainara Arratibel
Justo Bachiller
Ana Horrillo
Maite Sagaseta
Azuzena Bonafau
Cristina Mazkieran
Eloy Artolazabal
Marisol Iruin
Arantxa Astibia
Mari Carmen Gonzalo
Arantxa Sagastibeltza

Eskerrik asko guztiei.

Andoainen, 2018ko otsailaren 7an.